

## 6. Diru-laguntza ebazteko eskumena duen organoa

Alkatetzak izango du eskumena diru-laguntza emateko, dagokion informazio batzordeak txostena eman ondoren.

Teknikariek eskaerak aztertuko dituzte eta laguntza emango diote instrukzio organoari.

## 7. Onuradunen betebeharrak

Pertsona onuradunaren familia unitateak egunean izan beharko ditu Zuiako Udalarekin, ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga- betebeharrak.

## 8. Diru-laguntzen xede kontrola

Zuiako Udalak datuen fidagarritasuna eta diru-laguntzaren erabilera egokia egiaztatzeko egoki jotzen dituen jarduerak egiteko eskubidea izango du.

## 9. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo izkutatzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Zuiako Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

## Euskara ikasteko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak

### 1. Xedea

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2023an eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketa egiteko dira.

– Euskaltegietan edo HABEk homologatuetako zentroetan egindako ikastaroak (2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era arte).

– Ikastaroak barnetegi homologatuetan, 2023an.

### 2. Onuradunak

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

### 3. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Ikastaroko matrikula ordaindu delako frogagiria (jatorrizkoa).

– Euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria; bertan, interesdunak egin dituen eta gainditu dituen mailak agertuko dira, bai eta aprobetxamendua eta asistentzia ere; era berean, zentroak emandako orduak eta ikasleak jasotakoak adierazi behar dira.

### 4. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

– Diru-laguntza eskatzen duen ikastaroan gutxienez orduen ehuneko 80an izan direla frogatu, ezinezkoa denean izan ezik (arrazoiak azalduta).

– Ikastaroko maila gainditu edo, bestela, ikasketa orduak ondo aprobetxatu direla frogatu.

– Helburu bererako jasotzen diren laguntza eta diru-laguntza guztien berri eman Udalari. Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

– Zuiako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean eduki.

#### **5. Eskaerak aurkezteko epealdia**

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko, udalak emandako ereduaren arabera.

Eskabidea eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan entregatuko dira, udalak emandako ereduaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

#### **6. Balorazio irizpideak**

Diru-laguntzak borondatezkoak dira; udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

#### **7. Eskaerak ebazteko eskumena daukan organoa**

Alkatetzak emango du ebazpena informazio batzordeak bidezko txostena egin ondoren.

#### **8. Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2023ko ekitaldiko aurrekontuko 335480000 partidaren kredituari, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin egotziko zaizkio.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroko matrikularen ehuneko 85 izango da, 600,00 euro urtean gehienez. Barnetegien kasuan ezin dira sartu diru-laguntzan mantenu gastuak ez ostatu gastuak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da izan ikastaroaren kostua baino gehiago.

#### **9. Justifikatzea eta ordaintzea**

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

#### **10. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea**

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.